

bidegileak



Jesus Insausti (1912-1993)

Egilea:

MIKEL UGALDE

Tolosa, Insaustiren jaioterri

Jesus Insausti Urkirizar *Uzturre* Tolosan jaio zen eta bertan sustrai sendoak bota zituen gerrateak beste zeregi-
netara urrunarazi zuen arte. Tolosar bete-betea sentitzen zen. Bere sorterrria kutunkiro maite zuela ez dago
dudarik. Nolakoa zen, ordea, XX.
mende hasierako Tolosa hura?

Historiaren iturrietara luzaz jo gabe, ez baita hori lan labur honen asmoa, mende honen hasieran oso herri bizia eta nortasun handikoa zela esan deza-
kegu. Orain baino dezentez jende gu-
txiago bizi zen, hamarren bat mila bizi-

lagun. Gehientsuenak, hamarretik zortzi Insaustiren esanetan, euskaldunak.

XIX. mendean jaiotako industria bere heldu-
tasunera iristen da mende honetako lehen
hamarkadetan. Papergintzan nabarmentzen
da gehienbat garai hartako industria, berau
baitute ardatz nagusi. Papergintzarekin bate-
ra, jakina, beste hainbat moldiztegi ere sortu



Jesus Insausti Urkirizar *Uzturre* (1912-1993).



Tolosa XIX. mendean.

zen. Martxan zegoen industriaren osagarri gisa burdin lantegiak ere ez ziren falta.

Industriak, bestalde, langileak eskatzen zituen eta Tolosak ere, industariatutako beste herrietan bezalatsu, bizi izan zituen gorabeherak eta huelgak bertako lantegietan. Gogoan hartzekoa da mendearen hasierarekin batera langile elkarteak sortzen hasten direla. Mustad y Cía lantegian 1907an izandako gatazkak hainbesteko eraginik izan ez bazuen ere, bost urte geroago, Papelera Española-n, Uzturreren aitzak lan egin zuen lantegian, lan eta jornal tinko baten aldeko huelgak harrotu zituen hautsak. Langileen lehen garaipen hau ondorengo beste zenbait ekitaldiren abiapuntu izan zen.

Giro politikoari dagokionez, 1914ko martxoan egindako hauteskundeetan, karlisten hautagaitza erraz nagusitu zitzaion errepublika zaleen taldeari. Insaustik berak aitortzen

digun bezala, karlista zen bere haurtzaroko Tolosa. Bertakoa zen garaitsu horretan, 1913-1918an, Ladislao de Zavala Echaide Gipuzkoako Diputazioko buru izango zena. Euzko Alderdi Jeltzaleak 539 boto eskuratuko ditu 1918ko hauteskundeetan.

Tolosa kulturgintzan eta euskalgintzan izan da bizia XX. mendean batik bat. Nahiz eta jaioz debarra izan, Tolosan bizi izan zen V. Araquistain *El basojaun de Etumeta* eta *Leyendas Vasco-Cántabras*-en egilea. Mende osoan zehar, ordea, kontaezina da, Tolosan eta inguruetako euskalgintzaren zerua, argiztatzeko duen izarren zerrenda: Orkaiztegi, Lizardi, Orixe, Lopez Mendizabal, Labaien... Olerkari ezagunak ere eman ditu Tolosak: Ramón Artola, Ramos Azkarate, Valeriano Mokoroa, Emeterio Arrese... Kabi gozo eta erosoak izan du euskarak Tolosan azken mende honetan. Jesus Insaustik ere esku hartu izan zuen, beste herritar batzuekin batera, euskal antzerki emanaldietan.



Uzturre mendia Tolosan. Jesus Insaustik *Uzturre* ezizena sarritan erabiliko du bere lanetan.

Hainbat lan, neke eta giza arazo nozitzez gain, festak oso maite izan dituen herria izan da Tolosa. Urteko jaiak San Juanetan ospatzen bazituzten ere, Tolosako Inauteriak izan dira benetan arrakastatsu eta erakargarriak. Herriaren baitan sakon sustraitutako jaiak, erasorik gogorrenetan ere sendo iraun izan dutenak. Garizumaren atariko jaiok herriak nola bizi ohi zituen ikusi eta gozatu ahal izan zuten txiki-txikitatik Insausti mutilak.

Horrelakoxea zen Insausti hazten eta hezten ikusi zuten Tolosa.

Haurtzaro eta gaztaroa

Lehenago aipatu bezala, 1912an, urtarrilaren 11n, jaio zen Jesus Insausti langile giroko familian. Aitak, Franciscok, Papelera Española-n egiten zuen lan eta amak, Felipak, arraina saltzen, Tximela sagardotegia hartu arte. Sei seme-alaba izan zituzten baina, horietatik lau hil baitziren, Mari Karmen arreba bakarrik gelditu zitzaion Uzturreri. Umetan oso mutil koskor bizia izan behar zuen eta horregatik deitzen omen zioten Tximista.



Insausti mutikoa, bigarren iladan, ezkerretik bigarrena, eserita, bere kideekin Aita Eskolapioen eskolan. Erdian Aita Esteban Irazoiz, gure mutikoa euskaltasunaren bideetatik abiarazi izan zuena.

Herriko osagile izateko, mediku ikasketak egitea gogoko zuen arren, etxean semeari goi mailako eskola eskaintzeko modurik ez baitzuten, Eskolapioetan ikasteari utzi zionean 15 urte zituen. Erabaki garrantza izan zen gure gaztearentzat. Gazte-gazterik, eskola utzi bezain laster, lanean hasi zen, Limousin lantegiko ofizinan. Han irabazten zuen apurra, herriko berri emaile gisa, anuntzio, eskela eta abarretatik jasotzen zuenarekin osatzen zuen jorнала.

Lanari gaztetan ekin zion, beraz, bai lantegian bai kanpoan. Garai hartan bazen elizaren baitan gazte langileak biltzen zituen JOC erakun-

dea eta bertara hurbildu zen gure gizona gizartearekiko kezka eraginda. Agertu bai baina ez luzaroko, handik hamabost egunera alde egin zuen bertako giro espainola batere gogoko ez zuelako. Gizarte egoerak kezkatzen zuen baina, era berean, abertzale moduan erantzunez egin nahi zuen aurrera.

Esan bezala, gaztetatik erakutsi izan zuen gizartegintzaren kezka. Horra hor baserriarren bizimodu gogorraz arduraturik, 1934an, *Argia* aldizkarian, argitaratutako lanak lekuko. Baserriaren egoera gogorrari abertzaletasunaren ikuspegitik heltzen zion plazaratutako lanetan.



Jesus Insausti antzeztu ohi zuen herriko antzerki taldearen emanaldietan.

Jesus Insausti gazteak begi argiak eta luma zorrotza erakutsi zituen, bere inguruan gertatzen zenaz hausnartu eta bere iritziak zehatz eta zuzen ematerakoan. Abertzaletasunaren iturrietatik xurgatuz blaituko du bere gizartegintza.

Bere buruaren jabe izango zen gizakia eta herria nahi zituelako egin zuen abertzaletasunaren hautua. Abertzaletasuna eta gizartegintza ongi uztartzen saiatu zen Uzturre. Nondik norakoa zuen, ordea, abertzaletasunaren grina?



1934ko ihauteriak. Uzturre argazkian, zutik, emakumearen ezkerrean ageri da.

Abertzalea

Jesus Insaustik kontatu ohi zuenez, Aita Esteban Iraizozek piztu zion abertzaletasunaren gogoia. Bere familia karlista bazen ere, kale giroan abertzaletasuna sendotzen ari zen eta hori ongi nabaritzen zen Tximelarena sagardotegian. Primo de Riveraren diktaduran, nonahi biltzerik ez eta, Aberri taldeko abertzaleak sarritan hurbiltzen ziren sagardotegira mahai baten inguruan alderdiaren inguruko gorabeherak aztertzeraz, planak egitera. Insausti gaztea adi egon ohi zen gizon haien



Insaustik 20 urte zituenekoa, Aberri Eguna ospatzera Bilbora joan eta bertan aterea.

hizketa jarraitzen eta abestiak entzuten. Bere esanetan, EAJ bitan zatitua zegoela konturatzearaz gain, hamaikatzeko abesti abertzale ikasi zuen sagardotegian 1929. urte inguru hartan. Esan gabe doa, Insaustik Aberrikoak zituela gogokoen eta miretsi egiten zituela. Konspirazioaren tajua hartzen zien sagardotegiko saio haiei. Alderdi barruan indarrak bateratu zirenean egin zen EAJko bazkide 1930ean.

Gure mutila ez zen gelditu egoteko jaioa. Behin batean jaso du, debekatua egonagatik, jakineko egun eta tokian, eguerdiko hamabietan puntuan agertzeko agindua. Tolosako Triangulo izeneko plazan zabaldu eta barreiatu behar zituen paperak eskuratu zituen. Jende ugari bildu ohi zen larunbat eguerdian eta toki aproposa zen halako ekintza burutzeko. Artean 17 urte zituen Insausti gaztea ez zen hankamotz gelditu.

Handik egun batzuetara Tolosako auzitegira eramane zuten goardia zibil batek gobernu ordezkaria zen Macapinale koronelarengana. Galdeketa zorrotza egin eta gero, kontu garbirik ateratzen ez zuela ikusita, besteren batean horrelako lanetan harrapatzen baldin bazuten, hankak eta eskuak lotu eta Txafarina uharteetara bidaliko zuten desafioa egin zion militarrek. Uharte haiek baziren ere ez zekien Insaustik. Honenbestean libratu egin zen eta kontentu.

Propaganda lanetan jarraituko du han eta hemen, Nafarroako inguruko herrietan batik



1991ko martxoaren 9an EGIko gazteek eskaini zioten omenaldian.

bat. Estatutuaren aldeko mezua zabaltzen sutsu saiatu zen tolosarra herritarrei gai honi buruzko iritzia eskatu zitzaientean.

Abertzaletasunak eraginda, txistua jotzen ikastera ere iritsi zen eta, dakigunez, Ormaiztegi-ko batzokiaren inaugurazioan bertan aritu zen txistua jotzen.

Aberriaren aldeko lehiak blaituko du Uzturreren bizitza. Errepublikan eta gerratean,

espetxean eta atzerrian, Parisen nahiz Bruselan tinko eutsiko dio abertzaletasunari. 1980ko udaberrian Bilboratu zenean bete-bete ekin zion EAJren aldeko lanari. Lehendabizi Bizkaiko Buru Batzarreko kide izendatu zuten 1981ean eta Euzkadi Buru Batzarreko kide 1984an eta EAJko lehendakari 1985eko otsailaren 6an. Urte gogor eta mingotsak egokitu zitzaizkion alderdiaren zatiketa medio.



Uzturre ikurrina altxatzen.



Euzko Alderdi Jeltzako bi buruzagi: Insausti eta Arzalluz.



Sabino Arana Kultur Elkargoko Agiritegi Historikoaren aurrean Gernikako Arbolaren haritzondoa landatzen 1993ko urtarrilean.

Euskaltzalea

Horrelakoetan sarritan egin ohi den galdera da honako hau: abertzale zelako agertu al zen Jesus Insausti euskaltzale? edota euskaltzale zelako egin al zen abertzale?

Ez da erraza bi galdera hauei banan-banan erantzutea, ongi baino hobeto bildu baitzitu en bi ardatz hauek bere baitan Uzturrek.

Garai hartan, euskaltzale guztiak ez ziren abertzale eta ezta abertzale guztiak Insaustik nahi bezain euskaltzale. Izena eta izana bate-ratu nahi zituen. Horregatik, sutan jartzen zen abertzale omen zirenak erdaraz sentitzen zituenean.

Jesus Insaustik, garai hartan ez baitzuen egun-go euskaltegi aukerarik ezagutu, euskaltzale sentitzen zenez gero, goizero, Fausto Leunda lagun zuela, Aita Gervasio Iruarrizagarengana joko zuen 7etatik 8ak bitarte euskara hobetzeko asmotan. Herriko euskara menderatzen zuen baina hobeto ikasi nahi zuen. Euskara gehiago ezagutuz eta erabiliz sentitzen zen euskaltzale.

Berezkoa du Insaustik euskara, Jesusen izaera ezin ulertuzkoa izango litzateke euskararen baitan izan ezik. Bere lanak irakurri ahala, bat konturatzen da euskararen koofizialtasunaren aldarriak ez direla egungo kontu hutsa. Sutan jartzen zen, esaterako, gerra aurrean herri administrazioetatik erdara hutsean jasotako idazkiekin. «Euzkera aldeko esan

onak asko. Egintzak non dira ordea?» galdetuko du minduta abertzaletasunak gorantz egiten duen neurrian euskaltzaletasuna hazten ez delako.

Bazuen, irakaskuntzaren bidez euskarak gorantz egingo zuen esperantza. Itxaropenez ikusten zuen ikastolek eginiko ibilbidea eta euskararen onerako gertatzen ari zen eskolaren eraldaketa gertutik jarraitzen zuen. Horretaz gain, beste eremu eta mailetan ere euskararen aldeko pausoak eman beharra ikusten zuen Insaustik. Bere alderdiaren nahia Euskal Herria euskalduntzea zela aitortzen bazuen ere, alderdia barrutik euskalduntzea eskatu ohi zuen guztia amets hutsean gera ez zedin.

Irakurleak erreparatua izango dio noski, Insaustiren pasarte bat hona aldatzerakoan, «euzkera» idazten duela, hots, «s» ala «z» kontuetan Sabino Aranaren arauari jarraitzen diela. Euzkadi gogokoago zuen Euskadi baino. Dena den, esan beharra dago euskararen batasunaren aldeko pausoak, 60. eta 70. hamarkadetan eman zirela eta eztabaida sutuenak garai horretakoak izan baziren ere, Uzturre ez zela, beste zenbait herritar bezala, euskara batuaren aurka nabarmendu.

Insaustik jorratutako alor guztietan bistan ageri da bere euskaltzaletasuna. Lagun artean, gizarte lanetan, politikan eta, batez ere, kazetaritzan, itzulpengintzan eta kartzelan idatzitako lanetan, euskara dario bihotzari.

Herriko kronikan Tolosako alkatearen asmoak eta lanak zorrotz kritikatu ondoren, Ondarretan espetxeratu zutenean, Arturo Campión idazle nafarraren *Pedro Mari* itzuli eta publikatu zuen.

Beste lan gordinagoak ere itzuli behar izan zituen *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* euskaraz ipintzeari ekin zionean. Loiolatik

Gernikara propio joan zen eginkizun berri hari heltzeko. Erronka handi bat zen hura Insaustirentzat. Gisa horretako buletin ofizialak erabili ohi duten testu mota euskaraz ipintzeak ez zizkion nolanahiko buruhaustek sortu. Euskararen jantziak motz samar gelditzen zitzaizkion haur jaio berri hari. Bistan zeuden esparru berri horretan euskarak berekin zituen ajeak eta mugak.



Jose Antonio Ardanza lehendakari izendatu berriarekin Gernikako Arbolaren itzalpean.

Insausti kazetari

Gerra aurreko kazetaritzari begirada bat botatzen baldin badiogu berehala konturatuko gara hainbat eta hainbat lanen egileak ezizenez izenpetuta agertu ohi zirela. Insaustiri ere halatsu gertatzen zaio. Lehenago aipatutako aita Gervasiok horrelaxe gomendatuta hasi zen Uzturre ezizenez bere lanak izenpetzen. *El Día*-n, Suzitza eta Zubiaurre ere erabiliko ditu Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan. Errepublikara garaietan berau izango da *El Día* egunkarian Tolosako berri emaile, bere kronikak, euskaraz eta erdaraz, argitaratuz. Argi eta zehatz idazten du, batzutan Tolosako gertakari xume eta arruntak kontatuko ditu hara

nola, ezkontzak, jaiotzak, bataioak, heriotzak eta abar. Bestetan, ordea, herriko hainbat auziren inguruan emandako iritziek hautsak harrotuko dituzte.



Uzturrek sei hamarkadatan eginiko hainbat lan biltzen dituen liburuaaren portada.



El Día kazetaren lehen orrialdea.

Batzuetan gozo, bestetan zorrotz, agertu zen bere lanetan. Zenbait gertakizun negargarriren aurrean bihotzaren mintzoari utziko dio bere lekua. Hunkigarriak dira, esaterako, Lizardi handiari bere heriotzan eskaintzen dizkion lerro labur hauek:

«Agire'tar Joseba Mirena il da. Igande arratsaldean. Iruterditan. Deun bat bezela. Il aurrean auxe zion: "zerura...zerura..."».

«Gizon zurra zan Joseba Mirena. Beti egia ezpañetan. Il aurrean ziona ere, "zerura... zerura..." egia bear. Deun bat bezela il zan. Zerua deunentzat bakarrik dalako. Eta Lizardi'k, zeruratzeko utzi gaitu. Agur Joseba Mirena... Zerutik begira guri. Aberri katepetu aldeko lanetan minkide gintzaizkizunak, izango al gera, egun batean, zerukoan, pozkide. Joseba Mirena! Begira guri...».

Ez dago ez Euskal Herrian, ez atzerrian, Uzturreren lanik argitaratu ez duen euskal

aldizkaririk. Errepublika garai hartan, esaterako, *Euzkadi*, *Argia*, *La Voz de Navarra*, *Nafartarra*, *Gipuzkoarra*, *Amayur* eta abarretan. Gerra garaian, berriz, *Eguna* euskarazko egunkarian. Izan ere, gerrateko lekuko zuzena izan zen Jesus Insausti eta horrela ageri zaigu «Kaleko Marmarra» izeneko txokoan. Gerrak aurrera egin ahala, hainbat lagunen heriotzen berri eman beharra, Saseta hil zutenekoa, euskal familietan sortarazten zuen negar saminaren sentipena, gizakia abere bihurtzen zueneko gudaren patua, kristautasunaren izenean erretako Gernikak sortarazten dion sumina... Hori guztia, bizitzeko ez ezik, kontatzeko eta ezagutarazteko adorea ere erakutsiko zigun tolosarrak. Halabeharrek, eta abertzaletasunak, gudara eraman zuelako, behin eta birritan madarikatu zuen «guda urde hau!». Zehaztasunez eta indartsu zabaldu zituen gudaren inguruko gertaerak eta bizipenak.

Lanak ugaltu ahala, ezizenak ere gehituz joango zaizkio. Lehenago aipatutako Suzitza eta Zubiaurrez gain, Etxemin, Lizarbe, Irakurle... maiz erabiliko ditu. Errimiñez izenpearekin argitaratuko ditu bere lanak Mexikoko *Euzko Deya* aldizkarian.

Bazekien Insaustik bere ideiak plazaratzen eta zabaltzen, baita besterenak ulertzen ere. Behin Argentinako *Tierra Vasca* izenekoan (1960-1963), ideia sozialistak bertara ekarriko zituen norbaiten lankidetzaren bila zebil-

tzan. Ez zuten beste inor lortu nonbait eta hara, sozialista bailitzan, lan hori Jesus Insaustiri non eskatzen dioten. Baita honek baietza eman ere. Hor aritu zen Manuel Arrieta izenpean lanak argitaratzen. Artikuluen egilea abertzalea izanik, ez zuen inongo eragozpenik izan sozialisten pentsamendu, jokamolde eta izaera gogoan hartuz, horrelako lanak burutzeko. Artikulugile sozialista zein ote zen galdezka ere sumatu zituen Arrietak bere inguruan, baina ez zitzaien, inondik ere, izenpe haren ezkutuan abertzale bat izan zitekeenik bururatzen. Lehengo ezizen zerrendari, beraz, Manuel Arrietarena, sozialista peto-petoa, gehitu behar zaio.

Euskararekin gertatzen zitzaionaren antzera, berezkoa zuen kazetari sena Uzturrek. Aldizkarietan argitaratutako lanez gain, irrati mun-

duan ere aritu zen. Hara nola, *Radio Euzkadi*-n Hegoaldetik Iparraldera ihes egin behar izan zuenean, edota *Radio Paris*-en Frantziako hiri-burura joan zenean.

Irrati lanetan *Radio Paris*-en aritu zenean, (1960-64), bi programa egin ohi zuen «Paris'tik Euskalerrira» eta «Paris'tik Mundu Zabalerara». Lehenengoan, Francoren diktaduraren garai gogor haietan, entzule euskaldunak hartzen zituen gogoan. Hamaikatzko irrati pizten eta konektatzen zen ilunabarretan euskal sukaldeetan, hori bai, ahots ahalik eta apalenean ipiniz. Huraxe zen haize freskoa ekar zezakeen leihoetariko bat. Bigarrena, berriz, munduan zehar sakabanatutako herritarrei, Hegoamerikan zeuden euskotarrei begira egin ohi zuen gehienbat *Irrintzi* deituriko atalean. Historia eta kultura gaiak jorratzen zituen programa hauetan.

Politika eta sindikalgintzarekin zer ikusi zuzena izan zezaketen gaiak ere argitaratu zituen EAJren *Alderdi* aldizkarian (1947-1974).

Munduko Lan Konfederaziora (MLK-ra) iritsi zenean ere, nahiz eta hasieran artxiboa txukuntzeko agindua jaso zuen, berehala heldu zion sindikatuen konfederazioko prentsa zerbitzua sendotzeari. Bere ardurapean argitaratuko da ia hogeitahun *Labor* aldizkari sindikala.



Egunan ere argitaratu izan zituen Insaustik bere lanak.

Zigorpean

Kazetari lana zabala bezain oparoa izan zela bistan da. Sabino Arana Kultur Elkargoak argitaratutako bi liburuki lodiak ikustea aski da lanaren zenbatekoaz jabetzeko. Herri baten bizitzan komunikabideek eragin zezaketenaren berri zuelako, gogor heldu zion, lehen aipatu bezala, lan horri.

Kazetaritzako ibilbidea, ordea, ez zen zenbaitetan batere eroso izan. *El Día*-n idatzitako kroniketako batean gogor salatzen du Fidel Azurza alkatearen portaera. Herriko kronikan



Jesus Insausti Ondarretako kartzelatik irten zeneko unea.

agertutakoak ez zion batere graziaz egin agintariari eta, jarritako salaketaren ondorioz, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra jaso zuen. Ondarretako espetxean bi hilabete pasatxo egin eta gero, (1935-07-17) – (1935-09-25) ateratzen da kartzelatik, artean 23 urte baino ez dituen garaian.

Soldaduskan ere hilabeteko kalabozoa jasan behar izan zuen militarren zigorraren ondorioz. Kuartelean baziren nonbait erdaraz mintzatzeko arazoak zituzten hiru soldadu euskaldun eta militar erdaldunek ez zituzten batere gogoko. Iseka eta burla noiznahi gazte hauen kontura. Kuartelean gertatuaren notizia *El Día*-ra iritsi zen eta baita militarren jokaera salatuz horren berri eman ere. Loiolan ohartu zirenean, Insaustiren ziria ikusi zuten militarrek eta, horren ondorioz, hilabete bateko kalabozo zigorra jaso zuen gure mutilak.

Insaustiren kartzelaldi eta zigorraldiak ez dira, ordea, hemen amaitzen. Santoñan, fran-



Kartzelara hurbildutako Jesus Insaustiren senitartekoak zain.

kisten indarpean 1937an preso hartu eta gero, erromesaldi gogorra egingo du kartze-laz kartzela: El Dueson urte bete egin ondoren, Puerto de Santa Mariara beste presoekin batera merkantzia trenean, abereak bailiren, garraiatuak. Sei hilabete bertan egin eta Sevil-lara gero. Hamabi urte eta egun bateko zigorra jaso izan arren, espetxetik kaleratzea lortzen du 1941ean.

Handik zazpi urtera gertatua ez zen gozoagoa izan. Jesus Insausti Madrilen zebilen informazio zerbitzu lanetan. Informazioa jaso eta behar zen tokira helaraztea, arriskuan zeuden atzerritarrak isilka kanporatzen laguntzea eta beste hainbat isilpeko eginkizun burutu behar izan zuen Espainiako hiriburuan.

Noizbait gertatu behar eta, 1948ko urtarrilaren 22an detenitu zuten. Xehetasun osoz gogoratzen zituen Insaustik polizien ziegetan igarotako hiru hilabete garratz luze haiek. Denetarik jasan behar izan zuen. Batzutan tratu «gozoa», bestetan mehatxua, inoiz informazioa eta amore ematearen truke irtenbide erosoak eskaini zioten arren, irmo eutsi zion. Gure gizona makurtzen ez zutela ikusita, behin Pruden bere emaztea eraman zuten Madrila komisaldegira. Han, emaztearen aurrean, amore eman zezan ahaleginak eta bi egin zituzten. Alferrik, baina.

Ondoren beste erromesaldia: Carabanchelen lehenik, eta urte bete gerora Ocañan. Hemen




Soldaduska egiten ari zela zigorra jaso zuen koarteko zenbait gertaera *El Día*n agertzeagatik.

ihes egiteko plana martxan jarri bai baina ez zuten burutzerik izan. Yaserías eta Guadala-jarako espetxeak gertutik ezagutu zituen. Valle de los Caídos-ko lanetara eramango ote zuten kezka ere izan zuen baina, azkenik, Buitrago de la Sierra trabajadoreen batailoira zuzendu zuten. Bertatik, halako batean, emaztearen ahaleginei esker, zain zeukan autoan ihes egin zuen 1951ko maiatzaren 19an. Honenbestez, bukatu zitzaizkion espetxeetako ibilaldiak.

Sorkuntza lanetan

Arestian esan bezala, espetxetik ihes egin ondoren, atzerrirako bidea hartu beharrean aurkitzen da Jesus Insausti. Bere ibilia kontatzen jarraitu aurretik, ordea, ez genuke espetxean bertan eginiko lana aipatu eta azpimarratu gabe utzi nahi. Izan ere, kazetari eta itzultzaile bezala ezagutu dugun gizona, oraingo honetan, sorkuntza lanean murgilduko zaigu. Ez da, agian, punta-puntako literaturgilea izango, historiak ez du, seguraski, gorengo idazle bezala ezagutuko, baina, hala ere, kontuan hartzekoa da kartzelan eginiko hainbat lan.

Espetxean zama eramangarriago izan zedin, Pruden emazteari eskainitako 8 liburuxka idatzi zuen... Lehenengoan, Pruden Ameriketara jaioa zelako nonbait, Amerikako hainbat gertaera eta istorio jasotzen du. Ocañan idatziriko azkenengoetan aberri mina, emaztearekiko maitasun sakona, askatasun egarria... nabarmenduko zaizkio. Barru-barrutik sortuak dira Ocañan idatzitako bere poesiak, egoera garratzaren eta sentipen lazgarrien erakusle. Poesia ez ezik, baditu narrazio laburrak Gabon giroan oratuak. Pentsamenduak, itzulitako ipuinak, denbora-pasak...




Hainbat itzulpen, olerki eta narrazio idatzi zituen Uzturrek kartzelan. Argazkia bere eskuz idatzitako lanetako bat.

Horietakoa dugu hirugarren denboraldian, Carabanchelgo kartzelan, 1948an idatzitako *Abesti Zarrak*, William Saroya amerikarraren ipuinen itzulpena. James Stern-ek ondutako *The Woman who was loved* ere itzuli zuen *Neskazarra* izenburuarekin. Ohiko literatura-gile izatera iritsi ez bazen ere, bistan da komunikazioaren zereginetatik abiatu, itzulpen eta sorkuntza esparruak ere landu zituela.

Ona hemen Jesus Insaustik, Ocañan, 1950eko urtarrilaren 31n idatzitako *Ene maite kutuna* olerkia:

Nere biotzeko
Lore ederrena;
Nire samin guzien
Sendagai ziurrena;
Atsekabe orduetan
Babes gozoena;
Odol dariotenean
Zapi maiteena;
Nere amets guzien
Pitxi Kutunena;
Ordu illunenetan
Goiz-izar argiena;
Nere muxu guzien
Elburu tinkoena...
Ori zera neretzat
Ene maitetxo Kutuna!



Itzulpen baten atarikoa.



Jesus Parisen, bere lankideekin, mahai baten inguruan bilduta.

Atzerrian

Kartzelatik ihes egin, Donostian txango labur bat igaro, Iparraldera iritsi eta *Radio Euzkadi* irratiarentzat lanean hasten da Joseba Rezo-laren esanetara. Jose Antonio Agirre lehendakariak, ordea, bere inguruan nahi zuen Insausti eta Parisa jotzen du euskal gobernuaren aldeko informazio zerbitzuetara.

Parisen ere ez zuten poliziek lasai uzten. Frantziako zerbitzuentzat lan egin zezan proposatu zioten baina ez zuen onartu nahi izan.

Ezezkoa ez zioten, nonbait, barkatu. Jose Antonio Agirrek bitartekotza egin behar izan zuen egoera normaldu zedin.

Euskadiko lehen lehendakaria inor gutxik pentsatzen zuen momentuan hil zen 1960ko martxoaren 22an. Ondoren Jesus Maria Leizaolak hartu zuen kargua bere gain.

Jesus Maria Leizaola lehendakari izendatu eta gero, beste urte bete jarraitu zuen Parisen Uzturrek. Informazio zerbitzuak desegin eta egoera berri hartan urtebete egin zuen arren,

Insausti Bruselara aldatu zen beste ibilbide bati hasiera emateko asmotan. Hasieran Bruselan lan eginez eta ahal zuenean Parisa etorri izili bazen ere, handik gutxira Bruselan jartzzen da bizitzen. ELAko idazkari nagusi zen *Gogorrarekin* zituen harremanak tarteko,

Sindikatu Kristauen Nazioarteko Konfederazioan lan egiteko aukera sortu zitzaion. Lanbidez aldatu, Bruselara joan eta hogeituzetuz bertan jarraituko du Franco hil eta Euskal Herriko egoera politikoa aldatzen den arte.



Jose Antonio Agirre lehendakariaren hileta elizkizuna Donibane Lohitzunen.

Sindikalgintzaren eragile



San bezala, Pariseko lanak utzi eta ELAko idazkari nagusi zen Gregorio Ruiz de Ercillaren bitartekotzari esker, Belgikara joan zenean, sindikalgintza munduan bete-betean murgildu zen. Munduko Lan Konfederazioan. Lehen-dabizi artxiboak ordenatzen eta txukuntzen eta, ondoren, ia 20 urtetan, bertako prentsa arduradun bezala.

Bere kargua zela eta, munduan zehar hainbat sindikaturekin harremanak izan zituen, batez ere Hegoamerika eta Hegoafrikakoekin. Zenbait lurraldetako miseria gorria oso gertutik ezagutzeko zoria izan zuen Jesusek. Esan

beharrik ez dago harreman horietan beti euskaldun gisa agertu ohi zela tolosarra.

Sindikalgintzaren zeregina ez zen gauza berria Insaustirentzat. Gerra aurretik Euzko Langileen Alkartasuneko kide izanik, oso garbi ikusten zuen sindikalgintzaren zeregina. Alderdi politikoen lana zein sindikatuena, bakoitzaren zeregin eta nortasuna errespeta-tuz, noski, beharrezkotzat jotzen zituen gure gizartearentzat. Inoiz, sindikatuak, alderdiaren interesetatik aldenduz, bereari eusten zionean, zenbait jeltzale haserretzen zenean, Uzturrek defendatu egiten zuen euskal sindikatuaren lana. Jarrera hau are miresgarriagoa zen eginkizunak hain erraz nahasten ziren garai haietan.



Insaustik ELArenkin harreman onak izan zituen. Argazkian, Insausti eta Gerar Fonteneau-rekin batera, Jose Elorrieta idazkari nagusi izango zena.

Kontua da, hogeigarren mendean garatutako sindikatuak zenbait alderdi politikoren babespean hazi izan zirela eta, nolabait, sindikatuak alderdi politikoen interesen esanetara erabiliak izan zirela.

ELAri dagokionez, 1911n sortu eta bere lehen pausoak abertzaletasunaren mundua osatzen zuten langileekin eman zituen Abertzaleak EAJko ziren eta horietako langile asko ELAn afiliatzen ziren. ELA alderdiaren esane-koago nahi zutenei, Uzturrek bere iritzia argi eta garbi azalduko die. Alderdi politikoen, ez beste inoren, morrontzan jardun zezakeen sindikaturik ez zuen maite. Langileen interesak zaintzeko eta defendatzeko tresna bali-

garritzat jotzen zuen sindikatua. Baita, halabarharrez, ezinbestean, abertzale zenbaiten aurkako gatazka sortuko bazuen ere. Sindikatua EAJren esanetara jartzearen aldekoen aurrean, argi eta garbi azalduko du Uzturrek: autonomia osoz joka zezakeen langileen sindikatua behar duela Euskal Herriak.

ELAko buruzagiek ere oso aintzat hartu izan dute Uzturreren jarrera. Langilegoarekiko konpromezua azpimarratzen du Jose Elorrietak, ELAko idazkari nagusiak. Honako hau dio: «Jesus Insaustik beti izan ditu adiskide onak ELAn, adibidez *Gogorra*, frankista diktadurako urte gogorretan idazkari nagusi izan zena». Beheraxeago, berriz, honela jarraitzen



Munduko Lan Konfederazioko kide bezala Insaustik egin zuen azken agerraldia. 1980ko martxoan.

du: «Solaskide ereduzko izan zen, batez ere herri-sektorean lan harreman onak ezartzekoan... Etengabe aldeztu izan zituen konfederazio sindikalismoa solaskide egokia zelakoa eta herri-sektorean euskal mugimendu sindikala bultzatzea». Ildo beretsutik hauxe dio Alfonso Etxeberria ELAko idazkari nagusi ohiak: «Jesusek beti eduki izan du argi erakun-

de politikoen eta sindikalen arteko independentzia eta zuzen ulertu erakunde hauen dialektika gaitza...».

Jesus Insaustik 1980ko martxoan egin zuen azken agerraldia Quebec-en LMK-ko ordezkari bezala. Handik gutxira itzuli zen Euskal Herrira.

Amnesty international

Gizakiaren eta herrien aurkako erasoak salatzzen hainbeste urtetan aritu den, eta oraindik diharduen, *Amnesty International* erakundearekin oso harreman estuak izan zituen Jesus Insaustik. Munduan zehar hainbeste zapalkuntza, eraso, tortura eta gehiegikeria ikusita, ezinbestekotzat jotzen zuen Amnesty bezalako erakundea.

Tolosarrak berak aitortzen digunez, hamabost urte eman zituen erakunde honetako Londongo idazkaritzarekin elkarlanean. CMT sindikatuen konfederazioak horrela izendatuta aritzen lanean. Gertutik jarraitu zuen, beraz, Amnesty Internazionalaren lana. Ideologia aukera guztien gainetik, erakunde honek egin ohi dituen txostenak aintzat hartzen ditu oso, inongo ideologiaren hesiak gaindituz, hainbat gertakariren datu zehatzak emanez.

Amnesty ez zen salaketa soilean gelditzen. Hainbat espetxeratzereen ondorioz familietan sortu ohi ziren egoera larriei erantzuteko ahaleginak gogoan zituen Uzturrek bere idazlanetan azaldu ohi zuenez.

Bizitzan zehar hainbeste sufrimendu jasan behar izan zuen gizona, sentibera genuen Euskal Herrian nahiz munduko beste lurralde batzuetan sarriegitan gertatzen ziren eraso eta torturen aurrean.

Burgosko epaiketa (1973) dela eta, ETako kide batzuk heriotza zigorra jaso zezatekeela ikusten baitzuten, Baionatik deia jaso zuen Espainiako militarrek zigor hori bete ez zezaten laguntza eske. Baita Insausti berehala lanean hasi ere. Kristau sindikatueta lehenakari August Cool-i deitu zion gertatzen zenaren berri emanez eta, aldi berean, laguntza eskatuz. Cool-ek Fabiola erreginari lehenik eta ondoren Suenen kardenalari. Erreginak ahaleginak egin zituen Madril eta Burgosa deika. Kardenalak, berriz, Erromara. CMTren bidez Belgikako gobernu kideengana ere jo zuen Insaustik. Bruselako periodiku guztiak, heriotza arriskua zela eta, jakinaren gainean jarri zituen.

Heriotza arriskuan zeuden kideak salbatzeagatik ahaleginak eta bi egin zituen gure gizonak eta baita eragin zezaketeenengana ondo zuzendu ere. Horrelakoxea zen Jesus Insausti.

Gernikako Arbola bertsoetan sarritan gogoratzen dugun «eman da zabal zazu, munduan frutua» delako hura bete betean mamitu zuen Jesus Insaustik Belgikan eginiko txango luzean. Aukera bikainak eskaini zizkion MLK-ko prentsa arduradun izateak eta Amnesty-
rekiko lankidetzak. Gure gizonak ez zuen hutsik egin.



Jesus Insausti, atzeritik itzuli ondoren, nahi hainbat gozatzerik izan ez bazuen ere, gustuko zuen etxeko giroko epela.

Berriro etxean

Insaustik ez zuen jubilaziorik ezagutu. 1980an Bilbora itzultzen da Belgikatik eta, behin eta berriro, abertzaletasunak horretara bultzatuta, herrigintzari ekiten dio politikaren alorretik EAJko buruzagitzara iristeraino.

Sabino Arana Kultur Elkargoa antolatzeari ekin zion 1988an. Patrick de la Sota izan zen lehen lehendarakaria eta, Merkataritza Gan-

barako buru izendatu zutenean, Jesus Insaustik hartu zuen bere gain 1990ean elkar-goko lehendakari kargua. Ilusio handiz zeregin horretan jarraitu zuen 1993ko uztailaren 12an, Belendiz-Arruzuako etxean, hil zen arte. «Atzokoan finkatu gaur biharkoa bultzatu» goiburuari jarraiki, elkargoa gogoeta eta elkarriketarako gun e izan zedin ahalegindu zen buru-belarri.

Indarkeria dela eta

Insaustiren bizibideari amaiera eman baino lehen, ez genuke indarkeriaz pentsatzen zuena aipatu gabe utzi nahi. Azken hamarkadaotan Euskal Herriak bizi duen egoera gatazkatsua sarritan izan ohi zuen hizketa gai Uzturrek bere artikuluetan. *Ajuria Enean* izenpetutako dokumentua baikortasunez ikusten zuen 1988. urtearen hasieran. Bake hitza, bestalde, bere esanahi zabal eta osoenean erabili ohi zuen, hots, zulo hartatik irten ahal izateko gaitasun gisa, langabeziari erantzun ahal izateko ahalbide moduan, herriaren giza balioetan sinetsiz. Bere buruaren jabe izago zen heinean nagusi zitekeen bakea Euskal Herrian.

«Demokrazi arauetara zaputuz egiñik bizi eziña sortu du ETAk gurean» aitortzen digu mindu-



Insaustik gaitzetsi egiten zuen ETAREN jokabidea eta elkarriketa beharra aldarrikatzen zuen.

ta Uzturrek. Hainbeste heriotza, kartzela, atzerriratze eta sufrimendu iraganean jasan eta gero, zerbaitetarako merezi izan duen galdetzen dio bere buruari etsipenez. ETAREN ekintzek herri honi dagozkion helburuetatik urrutiratu egiten dutela argi eta garbi adierazi eta gero, erakunde armatuari benetako negoziaketari leioa noiz zabalduko dion galdetzen dio.

Izan ere, ETAREN jokaera gaitzesteaz gain, gure herriari egiten dion kaltea azpimarratzeaz gain, elkarriketaren baitan bakarrik ikusten zion auzi honi irtenbidea. Arazoak sustrai politikoak dituela baieztatu zuen Insaustik, indar polizialak bakarrik ez zuela ETA desgertaraziko. Esanguratsuak dira gai hau dela eta 1986an zioena: «Tokitako muturrean zeudek Madrileko sozialista edo sozialista izeneko agintariak Paris eta Madrid arteko akordio bidez eta errepresio uts bidez ETAREN gogorkeriaren min-bizia osatuko dutelakoa usten baldin baditek... Zoritxarrez denbora izango testigu».

Bakebidea elkarriketaren baitan kokatzen zuen eta horrelaxe berresten zuen *Euskaldunon Egunkaria*-n, 1993ko urtarrilaren 31n egin zion elkarriketan.

Ez zuen hainbeste amestutako bakerik eza gutu.

Pruden emazte kutun, bidelagun

Sarritan entzun izan dugun topikoa da, alegia gizartean agertu izan diren gizon handiek beti izan dutela, sarritan isilean, emakume handi baten laguntza. Jakin ez dakigu horrelako esaldi borobilik hitzez hitz ontzat eman daitekeen, baina Pruden Ibargueni, Insaustiren emazteari, dagokionez, esan beharra dago berau izan zuela Uzturrek aberkide sutsu, euskarri sendo eta bidelagun leiala. Ez dago tolosar honen bizitza ulertzerik Prudenen eraginpean izan ezik.

Jaiotzez Estatu Batuetakoa bazen ere, Bilbon ezagutu zuten elkar Prudenen gurasoek zeukaten apopiloetxean. Handik sei hilabete

ingurura ezkondu ziren 1942ko azaroaren 23an. Ez zuten familiarik izan baina beraien alaba bezala hartu ohi zuten Mari Jose iloba.

Senar-emazte ezkonberriek ez zuten bizimodu bigun eta eroso izan. Ezkondu eta berehala, Madrila jo zuen Insaustik informazio zerbitzuetara Flavio Ajuriagerraren aginduetara lan egitera. Diktadorearen sareetan ez erortzearren, bizimodu bakartia, isilpekoa, ia lagunik gabea izan zuten. Pruden zuen Insaustik bere sostengu. Prudenek, ekintzaile gisa ere hainbat zereginetan zuzenean esku hartu izan zuen: informazioa bideratzen, iheslariei laguntzen eta errepresaliatuen aldeko laguntzak jasotzen.

Erabakigarria izan zen, esaterako, Madrilen bere senarra 1948an detenitu zuten hartan,



Pruden Ibarguen,
Jesusen emazte
eta bidelagun nekaezina.



Pruden eta Jesus, ekaintzak behin ere banatuko ez zuen bikotea.

Prudenek erakutsi zuen kemena. Gizonak hilabeteak zeramatzan polizien egoitza nagusiko ziegetan eta ez zuten, ez onean, ez torturapean, gizonaren aitorpenik lortzen. Halako batean, poliziak Pruden hartu eta Madrilera eraman zuen gizonen aurrera honek amore eman zezan. Ez promesa ustelak, ez zigor mehatxuak ez zuten Prudenen ez Jesusen erabakia aldarazi.

Prudenen lana erabakigarria izan zen Buitrago de la Sierrako lan-bataloitik Jesusek ihes egin ahal izateko.

Lanak idazterakoan, artikulua prestatzerakoan, hantxe joko zuen Uzturrek iritzi eta aholku eske Prudenen begi zorrotza lagungarri baitzitzaion. Lehendabizi erraz ulertzeko moduan idatzi nahi zuen. Emazteari irakurrazazi eta honek ulertzen bazuen, balekotsat jotzen zuen tolosarrak. Idazkerari ez ezik, gaien mamiari eta esateko moldeari ere erreparatzen zien eta, hala behar izanez gero, gogortxo zirenak biguntzea, gehiegikeriak leuntzea, herriko euskarari gertutik jarraitzea... eskatuko zion senarrari. Bidelagun zintzo eta aholku emaile ona zuen Pruden gure gizonak.

Pruden Ibarguen 1986ko urtarrilaren 7an hil baitzen, gerora artikulua prestatzerakoan ere emaztearen falta sumatu egiten duela aitortu ohi zuen Jesus Insaustik.



Ez dago Uzturreren bizitza ulertzerik Prudenen arnas eta babesik gabe.



Gustura agertu ohi zen Jesus bere familiakoekin biltzen zenean.

Amaiera gisa

Herri baten bizitzan noizbehinka sortzen diren gizon bakanetarikoa da Jesus Insausti. Gaztetatik herrigintzaren aldeko pausoa ematen du, egiaren eta zapalduen defentsan agertuko da horregatik zigorra jasoko badu ere. Gerran hainbeste sufrimendu jasan eta gero, kartzela. Handik irten, ezkondu eta berehala informazio zerbitzu lanetara Madrilen. Berriro espetxea, atzerriratu beharra, Parisen pasatako urte latzak. Hirurogeita

hamar urtetik gorako gizonak kemena izan zuen atzerritik etorri eta aberriaren aldeko alderdian kargurik gorenena onartu eta beharrezkoak ziren erabakiak hartzeko.

Euskal Herriaren aldeko lanean jarduteaz gain, gogoan izan zituen munduko lurralderik zapalduenak, espetxeratuak, torturapean bizi zirenak. Horixe azpimarratu nahi izan zuen, esaterako, Jose Antonio Ardanza lehendakariak, Uzturreren heriotza zela eta, argitaratutako artikuluan.



Sabino Arana Kultur Elkargoaren sortzaile, eragile eta buruzagi izan zen Jesus Insausti.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Sabino Arana Elkargoa.*

Oharra: Egileak biziki eskertzen du Sabino Arana Elkargoak eskaini dion laguntza.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1753-7
84-457-1756-1

L.G.: VI-509/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística